



ALKATETZAREN TXOSTENA. 2011KO AURREKONTUA.

Memoria honekin 2011erako Udal Aurrekontuak aurkezten ditugu, 31.877.325,11 euroko aurreikuspena dutenak; diru-sarrerak eta gastuak orekatuta.

Historia apur bat eginez gogora ekarri nahi dut 2009. urteko dokumentuaren aurkezpenean geniona, hau da: krisialdiaren ondorioz urte zail eta korapilatsua izango zela urte hura eta 2010. urteko aurreikuspenak oraindik txarragoak izango zirela, gure inguruko ekonomiaren bilakabidea zaila iruditzen zitzaigulako.

Zoritxarrez, bai 2009. urtea eta baira 2010. urtea, biak izan dira uste baino askoz okerragoak, jardunaldi bietan aurrekontu-doiketak egin behar izan direlako gastuak eta diru-sarrerak orekatu ahal izateko, urte bi horietan udalaren diru-kutxak jaitsiera handia jasan baitzuen.

Baina, hala ere, jardunaldi bietan bete ahal izan ditugu lortu nahi genituen helburuak, beraz, erantzukizunez eta errealismoz, urte horietan hartu genituen konpromisoak betetzen joan gara.

Errealitatea hauxe da: 2011. urtea berriro ere oso urte zaila izango da; krisialdiak gizartea astintzen segituko du; beraz, udalaren kudeaketan horrek bere eragina izango du. Gobernu taldeak berriro ere aurrekontuak hankak lurrean dituela egin ditu; aurrekontu errealak eta arduratsuak, Toki Administrazio gertuago bat -eragingarriagoa eta eraginkorragoa- izateko bidean daudenak, eskaintzen dituen zerbitzuak mantendu eta zerbitzu gehiago eta hobeagoak eman nahi dituenak, gastuari eutsita eta gastuak arrazoiz eginda.

Aldi berean, agintaldi hasieran hartutako konpromisoak betetzen segitu nahi dugu, eta urte hau ez bada izango inbertsio urte bat ere, beste erakunde batzuen laguntzak lortzeak, elkarlanerako hitzarmenak izenpetzeak eta inbertsio-gastuak egiterakoan lehentasunak ipinita jarduteak gure konpromisoak betetzeko moduan jarriko gaitu.

Aurrekontu honekin lau urteko ziklo bati amaiera ematen diogu; nire ustez hauexek izan dira aldi horren ezaugarri nagusiak:

- Krisialdi ekonomiko larria; batik bat 2009an eta 2010ean izan dena eta 2011. urtean ere izango dela aurreikusten dena. Horrek jarduera ekonomiko osoari eragin dio eta udalaren beraren finantza-kapazitatean ere eragina izan du.



- Udal mailan bizi dugun adostasun politiko maila handia, udal talde gehienak dutena. Aurrekontu hauek egiterakoan gobernu taldea eusten duten udal talde politikoek hartu dute parte. Bai PSE-EE taldeak, bai EAJ-PNV taldeak eta baita Alkarbide taldeak ere, bakoitzak dituen erantzukizun arloetatik, aurrekontu hauei beharrezkoak egiten zaizkien edukiak eman dizkie gobernurako udal programak betetzen joateko. Aldi berean PP-k Hezkuntza Sailean duen erantzukizunetik, bere laguntza eman du dokumentu honi forma edo itxura ematerakoan.

Bestalde, aurrekontu-proiektu honek, onespena jasotzeko behar duen gehiengo osoa baino askoz gehiago badu ere aurkeztu zen egunetik bertatik, aurrekontua udal bizimoduaren beste sentsibilitate batzuei zabaltzeko jardun demokratikoan oinarrituta, oposizioko udal taldeei zuzenketak aurkezteko aldi bat eman izan diegu.

Une honetan ez daude itxita negoziazioak; PPrekin akordio batera heltzeko modua ikusten da. EB-Aralar taldeari dagokionez egoera zailagoa da, izan ere, aurrekontuari egindako zuzenketa oso bat dago, justifikazio ezberdin birekin defendatu dena eta bost (5) zuzenketa partzial, koalizio horren alderdi batek aurkeztu nahi duena eta besteak ez. Testuinguru honetan, EBrekin akordio batera heltzeko ahalegina egingo da, alderdi hori aurkeztu den zuzenketa partzialen aldekoa baita.

Azken finean, esan dudan bezala, agintaldi bat amaitu dugu. Orain dela lau urte hiritarren aurrean aurkeztu ginen proposamen batzuekin, hiriak aurrera egin zezan, hobetzen jarrai zezan. Lau urte hauen balantzea egiterakoan, Alkatetza honek uste du emaitza ontzat eman behar dela. Bizi izan ditugun zailtasun ekonomikoek helburuak betetzea zailagotu egin dute, baina nire ustez, orain dela lau urte aurkeztu ziren proposamenen betetze-maila handia da benetan.

Konpromisoa, lana, ilusioa, kapazitatea, leialtasuna, ahalegina, hurbiltasuna... Horixe da Alkatetza honek azken lau urte hauetan Eibarko hiritarrei eskaini izan diena. Ez dago zalantzarik: etorkizunak erronka berri batzuk ekarriko dizkigu, Eibar, hiri bizi, hiri moderno bilakatuko dute, bizi duen garaira egokitzen dakien hiria, egunetik egunera hobetzen doana. Eta Alkatetza hau lehenengo ilaran egongo da etorkizuneko erronka horiek lortzeko borrokan.

Eibarren 2011ko urtarrilaren 10ean

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL

ALKATEAK